



GAUTENA

27 Zk.

Maiatza 2005

KALITATEA

PROFESIONALEN SATISFAZIO MAILARI BURUZKO GALDEKETAREN EMAITZAK 2004KO ABENDUA

«Profesionalen satisfazio mailari buruzko galdeketa» izenburupean 2004ko abenduan egin zen azterketak Erabateko Kalitaterantz eredu biltzen diren baldintzetarako bidean aurreko urteetan iradokitako hobekuntzak jasotzen zituen, eta lortutako emaitzak ondorengoak dirá:

Hasteko, profesionalen parte hartzeari dagokionez, zoriz aukeratutako laginetik %37k erantzun dute (guztira 97 pertsona aukeratu ziren); alegia, GAUTENA osatzen duten profesionalen %22k erantzun zioten galdeketari. Erantzunen kopurua gehitzea komeni den arren, kontuan eduki behar da jasotako erantzunen indizea beste erakunde batzuetan egin ohi diren galdeketen antzekoa déla.

Bigarrenik, erantzun duten profesionalen satisfazio indizeak baikorrak direia ere azpimarratu behar da. Erantzundakoen artean %17ak *Satisfazio oso handia* daukala dio, %39ak *Satisfazio handia*, %23ak *Nahikoa* eta %17ak *Gutxi edo Batere ez*, azkenik galderen %4 baliorik gabekoak dirá.

Baloraziorik hoberenak lortu dituzten galderak ondorengoak izan dirá:

- «*Egiten dudana gustukoa dut*», batez beste, Setik 4,6.
- «*Lankideekiko harremana ona da*», batez beste Setik 4,4.
- «*Uste dut gure erabiltzaileen bizi kalitatea hobetzea lor dezakedala*», batez beste Setik 4,3.

Aldiz, emaitzarik txarrenak lortu dituen galdera ondorengoak izan da:

- *Uste dut Erakundearen garapen profesionalerako aukera berdintasunaren printzipioa aplikatzen déla*. Setik 2,5

Galdeketa honen harira egindako ekarpenen artean (36 pertsonatik 16), hobetu beharreko alorrak ondorengoak dirá: Prestakuntza, Zuzendaritzarekiko harremanak, Sendagile-taldea eta Arduradunen-taldea, hemen komunikazioa hobetzea eskatzen da; eta azkenik, galdeketarekin zerikusia duten alderdiak.

GAUTENAK eskerrak ematen dizkie galdeketari erantzundakoei beraien erantzunengatik eta egindako ekarpenengatik, eta iradokizunak kontuan hartu eta Hobekuntza Jarraiturako neurri bezala jarriko dirá abian.

Kalitate-bekaduna, **JUAN ALDAZ ARREGUI**



Profesionalentzako Prestakuntza Planaren barruan Eskulanei buruzko ikastaro bat egin da sei larunbatetan zehar. Ikasteaz gain, parte hartzaileek oso ongi pasa dute.

FAMILIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

UDAKO KANPAINA

HASTERA DOA

Urtero bezala, GAUTENA udarako jarduerak egitarau bat prestatzen ari da, gure ardurapean dauden pertsonen beharrak eta gogoak asetzeko asmoz. Horren barruan, honako hiru aukerak daude:

UDALEKU INTEGRATUAK: GAUTENAREN ardurapean dauden pertsonen aukera ematen zale beste erakunde edo talde batzuek antolaturiko egitarauetan parte hartzeko (Aldundiaren udalekuetan, udalek, ikastetxeek, asti librekotaldeek eta abarrek antolaturiko kanpamenduetan...). Hori bai, saiatzen gara autismoa jasaten duten pertsonen behar dituzten laguntza guztiak izan ditzatela integrazio horretan arazorik izan ez dadin.

UDALEKU IREKIAK: Egun bateko aisialdi-ekitaldiak dirá, uztail osoan, eskola adinean dauden ume eta gazteentzat antolatuak. Udaleku hauetan, GAUTENAREN ardurapean dauden pertsonen bakarrik hartzen dute parte. Saiatuko gara taldeak egiten Donostia, Irun, Arrásate, Elgoibar, Eibar, Zarautz eta Beasainen.

ABUZTUKO UDALEKUAK: 14 eguneko txandatan, 15 bat parte hartzailek oporrak pasatzen dituzte beren begiraileekin, Nafarroako hainbat tokitan batez ere, baina beti haien beharren arabera moldatuta. Abuztuko lehen hamabostaldian, udaleku hauek helduentzat dirá (20 urtetik gorakoentzat), eta bigarren hamabostaldikoak, aldiz, ume eta gazteentzat.

Galderarik edo zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan Jimmy Brosarekin.

JIMMY BROSA

Familientzako Laguntza Zerbitzuko arduraduna

PROFESIONALAK

AUTISMOA: ZENTZUGABEKERIA BATÍ BURUZKO OLERKIAO

Bare isiltasunean,
Ilunpean ere bare,
Argi itsugarria nitaz
Esnatzean da jabe.

Amaren irudia dakusat
Botere handiko zuzi;
Osorik ez, ordea, Ez
dezaket ikusi.

Ulergaitz harén hitzak,
Keinuak eta ahotsa, Baina
bai sentitzen dut Amodioz,
harén bihotza.

Ñire modura ulertzen dut Txoko
lasa! honetan, hori, Baina beste
hainbat gauza Zaizkit
beldurgarri.

Inguruan dudan mundua
Ez dut ulertzen Baina
errutinek bizia Zentzuz
dute hornitzen.

Egoera asko bizitzen ditut
Artega eta urdurl, Zarata, oihu,
musuak eta Besarkatu behar
horl.

Horrek narama neure barruan
Ixtera oso-osorik, Ez du errua
bakartu nahiak, Mundu
ulergaitzak baizik.

Komunikazio modutxoren bat
Nolzbait balitz aurkituko, Izango
nuke aukera ona Ingurukoa
ulertzeko.

Gutxiagotan itxiko nintzen
Hórrela neure barnean, Eta
blzlaz jakingo nuke Gozatu
besteen antzean.

IRMA ISASA
Mediku Psikiatra

IKERKETA

MADRILGO UNIBERTSITATE AUTONOMAK ESPAINIAKO AUTISMO KONFEDERAZIOARI EGINDAKO IKERKETARAKO- LANKIDETZA ESKARIA

Madrugo Unibertsitate Auto-
nomoan Rubén Palomo Seldas
Psikologian Lizentziatu eta M-
16.115 kolegiatua ikerketa-
proiektu interesgarri bat egiten arj
da Doktorego Tesirako lan
bezala, Mercedes Belinchón
Carmona andrearen zuzenda-
ritzapean. Tesirako *autismoaren
lehen alterazio-sintomak eta
bizitzako lehen bi urteetan
autismoak duen bilakabidearen
maila desberdinak* ari da
aztertzen, beste herrialde
batzuetan autismoari buruz
ikerketa zentroetan egiten diren
zentzu berean. Ikerketak
daukan planteamendua jku-
sirik, autismoa daukaten eta
garapenean atzeratuta dauden
umeen egoera hobeto ulertzera
eraman gaitzake, detekzio
goiztiarrerako elementu berriak
ere eskuratu daitezkeelarik.

Proiektu hori burutzeko, familia
elebakarren (gaztelera hiz-
tunak) lankidetzak behar daTGD
deitzen dena daukaten umeen
bizitzako lehen bi urteetako
bideo-grabazioak behar dirá
(grabazio horiek isilpeketasun-
bermerik handienarekin azter-
tuko dirá).

Lan horretan lankide izan edo
informazio gehiago jaso nahi
duten familiak ikerlariak
ondorengo helbide edo tele-
fonoetan jar daitezke harre-
manetan:

ruben.palomo@uam.es 661

957637/914978750

mercedes.belincon@uam.es

914975201



FAMILIENTZAKO INKAPAZITAZIOARI BURUZKO HITZALDIA

Maiatzaren 11n arratsaldeko 18:00etan
Kiroletxean (Añoeta futbol-estadioaren behean,
Xanti Taberna-Añoeta Hotelaren parean) familiei
zuzendutako informazio-hitzaldi bat ospatu zen.
Hitzaldiaren izenburua hau izan zen: «La
incapacitación: garantía de protección de los
derechos de las personas con discapacidad», eta
JOSÉ LUIS BASOKOK (Atzegiko Zuzendaria eta
Atzegi Fundazioko Idazkaria) eman zuen. Gaj hau,
eratzten hasi garen mintzaldietarako zuetariko askok
eskatu izan duzue.

BATZAR NAGUSIA

Ekainaren 2an, osteguna, arratsaldeko 18:00etan
Kiroletxean (Añoeta futbol-estadioaren behean,
Xanti Taberna-Añoeta Hotelaren parean)
GAUTENAREN Urteko Batzar Nagusia egingo dugu.
Bertan parte hartzera anlmutzen zaituztegu.

ETXEBIZITZA BERRIAREN OBRAK HASI DIRÁ

Azkenean hasi dirá etxebizitza berria egiteko lanak
Miramon II-an (Ospitaleen zona). Bi solairutako
eraikina da, hamalau erabiltzaileentzako (7+7), eta
datorren urte amaierarako martxan egotea espero
dugu. Dakizuenez, laguntza jaso dugu Donostiako
Udalaren aldetik, orubea utzi baitugu, bai eta
Aldundiaren aldetik ere, plazakordainduko>~m~
baina, proiektu osoa burutzeko, Kutxa Furt Gizarte
Ekintza Sallaren ekarpena eduki dugu.

AENOR-EN AUDITORIA

Aurten ere AENORek jarraipen-auditoria egingo
dugu. 1997an hasita egiten zaigun azterketa, aurten,
maiatzaren 25 eta 26an egingo da. Aurrekoetan
bezala, Arauak eskatzen dituen baldintzen pare
egotea espero dugu, kalitatearen zerbiltzua
bermatzeko eta hobekuntza jarraituan aurrera
egiteko.

ERRESUMA BATUKO HFT-RA BISITA

Maiatzeko bigarren astean GAUTENAKO Eguneko
Zerbitzuak eta Etxebizitza Saileko arduradunek, hots
Agustín Hiera, Félix Arregi eta Olatz Aizpuruk, lan-
bisita bat egin zuten Erresuma Batuko Home Farm
Trust erakundera. Erakunde hori minusballotasun
intelektuala daukaten pertsonentzako Erresuma
Batuko zerbitzu-hornitzaileak handiera da. Helburua,
etorkizunerako Etxebizitza eta Eguneko Zerbitzuei
dagokienez daukaten planak eta asmoak
ezagutzea zen. Era berean, kalitatearen alorrean eta
familientzako laguntza-programa eta erabil-
tzaileentzako parte hartze gaietan daukaten garapen
maila ezagutzeko ere aprobetxatuko da bisita.
Seguru, datorren urtean ireki asmo ditugun zerbitzu
berriei begira berrikuntzak egiteko ballagarria
zaigula aipatu bisita.

EITB ETA VOCENTO TALDEAREN KANPAINAK

iazko abenduaren 22an EITBk autismoari eskaini
zion Telemaratolaren emaitza baikorrak ikusirik,
autismoaz dauden ikerketa lerroak hobetu ahalko dirá.
Era berean berriki beste kanpaina bat ere egln da,
oraingoan VOCENTO TALDEAREN eskutik.

Urtarrilean VOCENTO TALDEKO komunikabide
desberdinak beraien programazioan autismoaren
gala aztertu zuten. Besteak beste TeleDonostik egin
zuen mahal ingurua eta El Diario Vasco egunkariak
argitaratutako erdiko kuadernotxoak aipa ditzakegu.